

Asteazkena, 2009ko urriak 28 - 15:23

Plaza

bilatu...

Bilatu

Hasiera BerriaTB Parte Hartu Blogak Bereziak Kanalak Zuzenekoak

Paperekoa Iragarki laburrak Hitza

Harian | Iritzia | Kirola | Agenda | Plaza

Berria.info » Papereko Edizioa » Plaza

2009-10-22

2009-10-22

Sagarren musika

Arizkun.

Garai batean egiten zen moduan egin ahal izango da sagardoa larunbatean, Kirikoketa bestan

IÑIGO ASTIZ.
Hamargarren urtez ospatuko dute Kirikoketa besta larunbatean Arizkongo Gamioxaarrea dolaretxean, Nafarroan. 11:00etan hasita, XVIII. mendean egiten zen bezala egin ahal izango dute sagardoa bertaratzen diren guztiek. Eskura izango dituzte horretarako beharrezko tresna guztiak, eta nork bere izerdiz lorturiko zukua dastatzeko aukera ere izango da gero, gainera.

Garai hartan sagarrak jotzeko erabiltzen zen tresnaren izena da *kirikoketa*, eta horregatik jarri zioten izen hori bestari. Ez lan tresna hutsa delako soilik, ordea, musika tresna gisa ere erabiltzen baita kirikoketa. Hala, larunbateko festak ere bi alor horiek batzen ditu, eta goizez sagardoa egiten aritu ondoren, arratsaldean musikaren tarteak izango da nagusi. Lana lehenik, eta kanta ondoren, sagarren musika ezagutzeko.

Lan eta kanta artean, baina, bazkaria izango da herriko pilotalekuan. Zikiro jatea izango da 14:30ean, eta gaztainak eta pintxoak ere jan ahal izango dira sagardo lanak bukatzean.

Musikaren tarteak helduko da gero, bazkalondoan. Baztango Kirikoketariak ariko dira, lehenik, eta baita Amaiurko eta Iparraldeko txalapartariak ere. Ondoren fanfarrea izango da MiFa eta Haizegoa taldeekin. Mikelats dantza taldearen ikuskizuna izango da gero, eta ikustearekin aski ez eta dantzatzeko gogoz direnek herri dantzak izango dituzte Mikelatsekoek bukatzean.

Gau aldera kontzertuak izango dira, Komando Kastaña eta antolatzaileek sorpresa gisa utzi nahi izan duten beste talde batekin.

Gamioxaarrea, bosgarrena

Festa antolatzen hasi zirela hamar urte badira ere, bosgarrenez ospatuko da Arizkongo Gamioxaarrea dolaretxean. Elizondon izaten zen lehenago festa, baina 2005ean dolaretxea auzolanean konpontzearekin, festa Arizkunera eramatea erabaki zuten antolatzaileek, eta han ospatzen da orduz geroztik. Egun oraindik erabiltzen den gisa horretako dolaretxe bakanetariko bat ezagutzeko aukera izango dute larunbatean bertaratzen direnek.

KIRIKOKETA BESTA

Non. Arizkunen (Nafarroa).

Noiz. Larunbatean, goizeko hamaiketan hasita.

Zer. Sagardo egitea, kirikoketa jotzea, kontzertuak, fanfarrea...

Hasiera | Euskal Herria | Ekonomia | Mundua | Kirola | Kultura | BerriaTB | Parte Hartu | Blogak | Bereziak | Paperekoa

 

© Berria.info - Euskal Editorea S.L.
Martin Ugalde Kultur Parkea, Andoain 20140

Telefonoa: 943 304 030 / Faxes: 943 590 172
berria@berria.info - www.berria.info
Lege Informazioa



Laguntzaileak:


KULTURA SALA
Ministerio Patrimoniala Kulturaren
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Ministerio de Política Lingüística


Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

http://paperekoa.berria.info/plaza/2009-10-22/052/012/Sagarren_musika.htm

28/10/2009